



Ohiko galderak berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruz

Gas fluordunen zenbat jarduera kode (GFJ) behar ditu hainbat establezimenduren titularra den zergadun batek?

2013ko abenduaren 27ko 1042/2013 Errege Dekretuaz onartua den Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregelamenduak 2.6 artikuluan dioenez (aurrerantzean, Gas fluordunen erregelamendua), *"persona edo entitate batek hainbat establezimendutan jarduera bera egiten duenean, jarduerari lotutako establezimendu adina kode izango ditu"*.

Zer ondorio ditu lurralde erregistro batean inskribatzen ez den birsaltzaile batentzat, kontuan hartuta hala exijitzen duela Gas fluordunen erregelamenduak?

Gas fluordunen erregelamenduak 2.1 artikuluan dioenez, besteak beste, birsaltzaileak eta 16/2013 Legearen 5.zazpi.1.a) artikuluan jasotako salbuespenaren onuradunak *"(...) behartuta egongo dira, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari lotutako produktuei dagokienez, kudeaketa bulegoko lurralde erregistro batean inskribatzera (...)"*.

Horiek ez inskribatzeak berekin ekarriko du berotegi efektuko gas fluordunak (aurrerantzean, gas fluordunak) erosten dituen enpresariak amaierako kontsumitzailearen izaera hartzea, zergaren ondorioetarako, eta berari zerga jasanaraztea eta, gainera, 2013ko urriaren 29ko 16/2013 Legeak, ingurumen arloko gaiak zergapetzeko neurriak ezarri eta bestelako neurri tributario eta finantzarioak onartzen dituenak (eta gas fluordunen gaineko zerga sortzen duenak), (aurrerantzean, 16/2013 Legea) 5.zazpi.1.a artikuluan jasotako salbuespena ezin baliatzea.

Eragotzi gabe Gas fluordunen erregelamenduko 10. eta 11. artikuluetan exijitutakoa, birsaltzailea izateko eta gas fluordunak erostean norberari zerga ez jasanarazteko, beharrezko da eroslea inskribatuta egotea jarduerari lotuta dagoen edo, horren ezean, bere zerga helbidea duen establezimenduaren esparrukoa den kudeaketa bulegoko lurralde erregistroan; gainera, gas fluordunen jarduera kodea (GFJ) lortu behar du, eta gasaren saltzaileari eman beharko zaio entrega zerga jasanarazi gabe egin ahal izan dezan.

Nola tratatzen dira gas fluordunen galerak?

16/2013 Legeak bere artikuluen barruan ez du jasotzen gas fluordunen galerak zergari ez lotzeko batere kasurik. Galerak zergari lotuta egongo dira, zeren eta horiek atmosferara egindako isurpen baten ondorio baitira eta zerga honen azken helburua isurpena zergapetzea baita.

Zergari lotuta egongo dira, autokontsumo moduan, eta horiek gertatzen diren lauhilekoan aitortu behar dira (16/2013 Legearen 5.sei.1.b eta 5.zortzi.1 artikulua).

Baldin eta galerak Administrazioak egindako zenbaketa batean atzematen badira, uste izango da, salbu aurkakoa frogatzen bada, gas fluordunak hainbat alditan saldu edo entregatu direla zergari lotuta, eta kuotak sortuzat ematen diren lauhilekoari egotziko zaizkio (16/2013 Legearen 5.sei.3 eta 5.zortzi.2 artikulua).

Glas fluordunen erregelamenduak 2.2 artikuluan lurralde erregistroko inskripzioa arautzen duenean "egitekoa den jardueraren epigrafea" aipatzen du. Epigrafe jakin bati buruz ari da zehazki?



Ez. Jakina, gas fluordunei lotutako jarduera bat izan beharko da.

Nolanahi ere, kudeaketa batzordeak baloratu beharko du zirkunstantzia hori, lurralde erregistroan inskribatzeko edo ez, betiere kontuan hartuta zergaduna jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoen epigrafea eta eskaerarekin batera aurkeztu nahi den jardueraren azalpen memoria.

Gas fluordunen erregelamenduko 2. artikuluan jasotako ondorioetarako, honela aurkeztu ahal izango dira bai eskaera eta bai lurralde erregistroan inskribatzeko gaineko dokumentazioa:

Norbera edozein erregistro publikotara joanez, posta ziurtatuaren bidez edo AEATen egoitza elektronikoaren bidez (erabiltzaile ziurtagiria erabilita).

Gas fluordunen erregelamenduko hirugarren xedapen iragankorrean aipatutako izakinen aitopena eredu batean aurkeztu behar al da?

Ez, ez da aurkeztu behar inolako eredutan.

Beharrezkoa izango al da hainbat GFJ kode izatea, baldin eta establezimendu berean hainbat jarduera egiten badira?

Gas fluordunen erregelamenduak honela dio 2.6 artikuluan: "(...) *establezimendu berean hainbat jarduera egiten badira, bertan egiten diren jarduera adina kode esleituko zaizkio (...)*".

Dena den, GFJ kodeei buruzko ebazpen proposamenean jasotako kode horien konfigurazioa ikusirik, uste dugu exigentzia hori salbuespenezkoa izango dela.

Zergaren eremu objektiboan sartuta dauden berotegi efektuko gas fluordunek ezaguna den izen komertzialik al dute, erraz identifikatzeko?

Ez, fabrikatzaile bakoitzak izen komertzial desberdin bat jartzen baitio.

2011ko otsailaren 4ko 138/2011 Errege Dekretuak onartutako hozteko instalazioetarako segurtasun erregelamenduan, gas fluordunak "R" letraz eta ondorengo zenbaki batez identifikatuta daude, fabrikatzaile bakoitzak izen komertzial propioa baitu.

Taula hori aldizka berritzen da, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, merkaturan gas fluordun berriak agertzen direnean.

GFJ koderik gabeko amaierako kontsumitzaile batek itzultzeko eskubiderik al du?

Bai, eskubidea du 16/2013 Legearen 5.hamalau.2 artikuluan jasotako itzulketa jasotzeko.

Gas fluordunen erregelamenduak 2.1 artikuluan ez du exijitzen amaierako kontsumitzaileak lurralde erregistroan sartzea, salbu eta salbuespen baten edo tasa murriztu baten onuraduna denean.

Zer zerga egoeratan daude, zergaren ondorioetarako, bitartekari soil moduan aritzen diren berotegi efektuko gas fluordunen enpresa merkaturatzaile eta banatzaileak, gehienetan jarduera egiteko establezimendurik ez baitute?

Honela dio 2010eko uztailaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak, Gas fluordunen eta horietan oinarritutako ekipoen merkaturatzeari eta manipulazioari nahiz horiek erabiltzen dituzten profesionalen ziurtapenari buruzkoak:



- Ez dute behar manipulazio ziurtagiririk
- Gas fluordunak banatu eta merkaturatzeko jarritako berariazko obligazioak bete beharko dituzte (795/2010 Errege Dekretuko 9. artikulua).
- Derrigorrezkoa izango da lurralde erregistroan inskribatzea (Gas fluordunen erregelamenduko 2.1 artikulua).

Establezimendurik gabe jardutekotan, gas fluordunak merkaturatu eta banatzen dituzten enpresek izena eman behako dute "zerga helbidearen eremuko den kudeaketa bulegoko lurralde erregistroan".

Zein da baliagarritasunaren lurralde eremua, Gas fluordunen eta horietan oinarritutako ekipoen merkaturatzeari eta manipulazioari nahiz horiek erabiltzen dituzten profesionalen ziurtapenari buruzkoak uztailaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak 4. artikuluan aipatutako gas fluordunak manipulatzeko ahalmena aitortzen duten ziurtagirien kasuan?

Artikulu horren 2. apartatuan jasotakoaren arabera, ziurtagiri horiek estatu osoan eta Europar Batasunean balioko dute, hala jasotzen baitu Europar Parlamentuko eta Kontseiluko 842/2006 Erregelamendua (EE) 5. artikuluan.

Zer instalatzaile hartuko dira amaierako kontsumitzailetzat?

Lurralde erregistroan inskribatzen ez diren 3 kilogramoko karga edo hortik gorakoa duten hozteko sistemadun ekipoak manipulatzeko ziurtagiri baten titularrak diren instalatzaileak eragotzi gabe, Gas fluordunen erregelamendua 1. artikuluan jasotakoaren arabera, beti amaierako kontsumitzailetzat hartuko dira "2010eko uztailaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuak, Gas fluordunen eta horietan oinarritutako ekipoen merkaturatzeari eta manipulazioari nahiz horiek erabiltzen dituzten profesionalen ziurtapenari buruzkoak, I. eranskinean jasotakoaren arabera 3 kilogramo gas fluordunetik beherako karga hozgarridun hozteko sistemak edo ibilgailuetan instalatutako pertsonen konfort termikorako hozgarri fluordunak erabiltzen dituzten hozteko sistemak manipulatzeko ziurtagiri bat bakarrik dutenak".

Zein da, zergaren ondorioetarako, Gas fluordunen erregelamenduko 1.1 artikuluan jasotakoez besteko ziurtagiri baten titularra den berotegi efektuko gas fluordunen instalatzaile edo manipulatzailearen egoera?

Galdera honen bidez, erreferentzia egiten zaie 3 kilogramo berotegi efektuko gas fluordunetik gora manipulatzekoa den eta ibilgailuetan jarrita dauden eta pertsonen konfort termikorakoak diren hozteko sistemak manipulatzeko ziurtagiriez bestelakoa den ziurtagiri bat duten instalatzaile edo manipulatzaileei.

Erositako gasen helburuaren arabera, bereiztekoak dira:

- Instalatzaileak edo manipulatzaileak "bere instalazio, ekipo edo aparatuetan amaierako erabilera emateko" erostea berotegi efektuko gas fluordunak. Kasu honetan, instalatzailea edo manipulatzailea amaierako kontsumitzailetzat hartzen da, eta gasa "zerga jasanarazita" erosten du (Gas fluordunen erregelamenduko 1.1 artikulua).
- Instalatzaileak edo manipulatzaileak "bere bezeroen ekipo edo aparatuetan" erabiltzeko erostea berotegi efektuko gas fluordunak, eta lurralde erregistroan birsaltzaile moduan inskribatuta egotea. Kasu honetan, instalatzailea edo manipulatzailea birsaltzailetzat hartzen da, eta berotegi efektuko gas fluorduna



zergari lotuta eta salbuetsita erosten du, 16/2013 Legearen 5.zazpi.1.a.) artikuluan jasotakoari jarraituz.

- Instalatzaileak edo manipulatzaileak "bere bezeroen ekipo edo aparatuetan" erabiltzeko erostea berotegi efektuko gas fluordunak, eta lurralde erregistroan birsaltzaile moduan inskribatuta ez egotea. Kasu honetan, instalatzailea edo manipulatzailea amaierako kontsumitzailetzat hartzen da, eta gasa "zerga jasanarazita" erosten du (Gas fluordunen erregelamenduko 1.1 artikulua).

Noiz da aplikatzekoa 16/2013 Legearen 5.zazpi.1.a) artikulua bigarren paragrafoa?

Artikulu horren arabera, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergatik salbuetsita egongo dira zergaren aplikaziorako lurralde eremuan birsaltzera bideratzen dituzten enpresariei egiten zaizkien zergari lotutako produktuen lehen salmentak edo entregak, hau da, Gas fluordunen erregelamenduko 1.5 artikuluan definitutako birsaltzaileei egiten zaizkien lehen salmentak edo entregak.

Lege horren 1.a) apartatuko bigarren paragrafoaren arabera, berotegi efektuko gas fluordunak geroago **saldu edo entregatuko diren** produktu, ekipo edo aparatuen fabrikazioan, kargan, birkargan, konponketan edo mantentze-lanetan erabiliak izateko erosten dituzten enpresariak ez dira berotegi efektuko gas fluordunen birsaltzaileak (bai, ordea, hala badagokio, beraiek saltzen dituzten produktu, ekipo edo aparatuen birsaltzaileak izango dira), baizik eta amaierako kontsumitzaileak eta, horrenbestez, salbuespen kasu hau ez zaie aplikatuko eta zerga jasanarazi beharko zaie.

Hau da, lehendabizi berotegi efektuko gas fluordunak erosten dituzte eta ondoren gas horiek txertatuta daramatzaten produktuak eskualdatzen dituzte. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren ondorioetarako, produktu, ekipo edo aparatuen ondorengo eskualdaketa ez da hartzen berotegi efektuko gas fluordunen eskualdaketatzat edo, bestela esanda, berotegi efektuko gas fluordunak ez dira salgaitzat hartzen.

Gas fluordunak kargatuko diren ekipo edo aparatuek "berri" izaera badute, enpresari horiek 16/2013 Legearen 5.zazpi.1.d artikuluan jasotako salbuespena izango lukete.

Derrigorrezkoa al da amaierako kontsumitzaileek 2014ko urtarrilaren 1ean beren esku dituzten berotegi efektuko gas fluordunen izakinen berri ematea?

Gas fluordunen erregelamenduaren hirugarren xedapen iragankorraren bidez, zerga honen zergadunek kudeaketa bulegoei 2014ko urtarrilaren 1ean gordailatuta dituzten berotegi efektuko gas fluordunen kopuruaz informatzeko duten betebeharra arautzen da.

16/2013 Legearen 5.bederatzi artikuluan jasotakoaren arabera, amaierako kontsumitzaileak ez dira zergaduntzat hartzen. Hortaz, xedapen iragankor horretan jasotako betebeharra ez zaie aplikatzen.

Zer tratamendu eman behar zaie, zerga honen ondorioetarako, beren ekipoak automantentzen dituzten enpresei?

Beren ekipoan automantentzen dituzten enpresak amaierako kontsumitzaileak dira, Gas fluordunen erregelamenduko 1.1. artikuluan jasotakoari jarraituz berotegi efektuko gas fluordunak "beren instalazio, ekipo edo aparatuetan amaieran erabiltzeko zerga jasanarazita" erosten dituzten neurrian.

Hortaz, ez dute GFJ koderik behar eta ez da zertan fakturarik egin, ez baitaie aplikatzen Gas fluordunen erregelamenduko 6. artikulua.



Zer dira berotegi efektuko gas fluordunak, gas horien gaineko zergaren ondorioetarako?

Berotegi efektuko gas fluordunak dira, zergaren ondorioetarako, 16/2013 Legearen 5.bi artikuluan jasotakoari jarraituz haren eremu objektiboaren barruan sartutako gasak.

Nola dago zergapetuta berotegi efektuko gas fluordunen inportazioa?

Berotegi efektuko gas fluordunen inportazioa ez dago zergari lotuta zerga-egitatea ez den neurrian, hala jasotzen baitu 16/2013 Legeak 5.sei artikuluan.

Gas fluordunen inportatzaileak GFJ kodea izan behar al du?

Bai, Gas fluordunen erregelamenduak 2.1 artikuluan espresuki exijitzen duen neurrian.

Nola dago zergapetuta berotegi efektuko gas fluordunen batasun barruko erosketak?

Berotegi efektuko gas fluordunen batasun barruko erosketak ez dago zergari lotuta zerga-egitatea ez den neurrian, hala jasotzen baitu 16/2013 Legeak 5.sei artikuluan.

Berotegi efektuko gas fluordunen erosleak GFJ kodea izan behar al du?

Bai, Gas fluordunen erregelamenduak 2.1 artikuluan espresuki exijitzen duen neurrian.

Nola erabiltzen da 16/2013 Legearen 5.hamaika artikuluan jasotako 1. tarifa?

Legeak hiru tarifa finkatzen ditu, kontuan hartuta zerga-egitateak (lehen salmenta edo entrega edo autokontsumoa) xedetzat gas puruak (1. tarifa), gas prestatuak (2. tarifa) edo gas birziklatu edo birsortuak (3. tarifa) ote dituen.

1. tarifi, gasaren izendapenak ahalbideratzen du hari dagokion epigrafea eta zergaren kuota zehaztea. Azken hori gasaren berotze atmosferikoaren potentzialaren arabera (BAP) finkatzen da eta kilogramoko eurotan adierazten da.

Hori horrela, aipatu behar da 150eko BAPa edo txikiagoa duten gasen tasa 0 dela, zeren eta gasa zergari lotu gabea baita (16/2013 Legearen 5.sei artikulua), 2014an, 2015ean eta 2016an poliuretanoak tasa murriztua izango duela (16/2013 Legearen 5.hamazortzi artikulua eta Gas fluordunen erregelamenduko bigarren xedapen iragankorra) eta, azkenik, 2014an eta 2015ean zergaren tarifak portzentajeen arabera aplikatuko direla (16/2013 Legearen 5.hemezortzi artikulua).

Nor da zergaduna, salbuespena izan duen gas baten erabilera aldatuz gero?

16/2013 Legearen 5.bederatzi.2 artikulua arabera, "(...) zergaduntzat hartuko dira berotegi efektuko gas fluordunak zergaren aplikazioko lurralde eremuan salbuespenerako eskubidea sortzen dutenez besteko erabileretara bideratzen dituzten enpresariak".

Suak itzaltzeko zer sistema finkori buruz ari da 16/2013 Legearen 5.zazpi.2 artikulua?

Beste sistema batzuk egoteko aukera baztertu gabe, instalatzaileek diotenez, suak itzaltzeko sistema finkoen funtzionamendua ihintzagailu automatikoen eta ur langarrezatuaren bidezkoa, ur lainoztatuaren bidezkoa, apar finkoaren bidezkoa, hautsaren bidezkoa, eragile itzaltzaile gaseosen bidezkoa, aerosol kondentsatuen bidezkoa eta ke eta bero kontrolaren bidezkoa izan daiteke.



Eragile itzaltzaile gaseosen bidez suak itzaltzeko sistema finkoek bakarrik erabiltzen dituzte gas fluordunak.

Zer GFJ kodea behar du Gas fluordunen erregelamenduak 1.5 artikuluan jasotako eragiketak egitera mugatzen den berotegi efektuko gas fluordunen birsaltzaile batek? Erabat edo partzialki salbuetsitako salmentak egin edo tasa murriztuak aplikatu ahal izango ditu? Zerga jasanarazi eta horren autolikidazioak egin beharko ditu?

Birsaltzaile horrek birsaltzailearen GFJ kode bat lortu beharko du eragiketa horiek egiteko erabiltzen dituen establezimendu bakoitzean, eta zergaduntzat hartuko da 16/2013 Legearen 5.bederatzi.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

Baldin eta berotegi efektuko gas fluordunen salmenten edo entregen hartzaileak badira gas horiek eraldaketa kimikorako lehengai moduan erabiltzen dituzten edo gas horiek ekipa edo aparatu berrietan lehen aldiz sartzeko erabiltzen dituzten edo sendagaiak egiteko erabiltzen dituzten beste birsaltzaile bat edo enpresariak, eragiketa horiek 16/2013 Legearen 5.zazpi.1 artikuluan jasotako salbuespenetako bat izan dezakete, betiere erregelamenduz jarritako baldintzak betetzen badira (hau da, hartzaileek beren izaera frogatzen duen GFJ kodea badute eta lurralde erregistroko inskripzio txartela erakusten badute).

Baldin eta berotegi efektuko gas fluordunen salmenten edo entregen hartzaileak 16/2013 Legearen 5.zazpi.2 artikuluan aipatutako enpresariak edo profesionalak badira, birsaltzaileak zerga jasanarazi ahal izango du, xedapen horretan aipatutako salbuespena aplikatuta, betiere erregelamenduz jarritako baldintzak betez gero (hau da, hartzaileek lurralde erregistroko inskripzio txartela erakusten badute).

Baldin eta berotegi efektuko gas fluordunen salmentak edo entregak, betiere zergaren aplikazioko lurralde eremuaren barruan, aurrekoak ez diren beste hartzaile batzuei egiten bazaizkie, birsaltzaileak sortutako kuoten zenbateko osoa jasanarazi beharko die berotegi efektuko gas fluordunen erosleei, eta azken horiek jasatera behartuta egongo dira (16/2013 Legearen 5.hamahiru.1 artikulua).

Dena den, baldin eta berotegi efektuko gas fluordunen salmenten hartzaileak 16/2013 Legearen 5.hamazortzi artikuluan aipatutako poliuretanoaren fabrikatzaileak badira, birsaltzaileak zerga xedapen horretan jasotako zerga tasa murriztua aplikatuta jasanarazi ahal izango du 2014an, 2015ean eta 2016an, betiere hartzaileek lurralde erregistroko inskripzio txartela erakusten badute.

Gainera, 2014an eta 2015ean, 16/2013 Legearen 5.hamaika artikuluan jasotako tasak 0,33 eta 0,66 koefizienteekin (lege horren 5.hamazortzi artikulua) biderkatuz ateratzen diren zerga tasak aplikatuko dira, hurrenez hurren.

Azkenik, lege horren 5.hamabost.1 artikuluaaren arabera, zergadunek sortutako kuoten autolikidazio bat aurkeztu behar dute lau hilean behin, eta aldi berean zerga zorra ordaindu.

Zer gertatuko litzateke aurreko galderan aipatutako birsaltzaileak erosten dituen berotegi efektuko gas fluordunen zati bat bere ekipak automantentzeko erabiliko balu, lehenago adierazitako eragiketez gain?

Autokontsumoa litzateke eta zerga sortuko litzateke, 16/2013 Legearen 5.zortzi.1 artikuluan jasotakoaren arabera.



Ekipo edo aparatu berri propioetan egindako berotegi efektuko gas fluordunen lehen karga balitz, gure iritziz, zergari lotu gabe edo salbuetsita dagoen autokontsumoa litzateke.

Gainerako kasuetan, zergari lotuta eta salbuetsi gabe dauden autokontsumoak lirateke, eta kuotak 16/2013 Legearen 5.hamabost.1 artikuluan aipatutako autolikidazioan sartu beharko lirateke.

Enpresa batek baditu hainbat autonomia erkidegotan kokatutako berotegi efektuko gas fluordunen lurralde erregistroan inskribatzera behartutako establezimenduak. Autonomia erkidego bakoitzean ziurtagiri bat lortu behar al du, ekipoak manipulatzeko eskumena frogatze aldera, eta horietako bakoitzaren erregistro integratu industrialean inskribatu?

Guri emandako informazioaren arabera, ekipoak manipulatzeko ahalmena frogatzen duten ziurtagirien lurralde eremua estatu osoa da; beraz, nahikoa da ziurtagiri hori edozein autonomia erkidegotan lortzea, enpresaren helbide sozialari dagokiona izan edo horren edozein establezimenduri dagokiona izan.

Dirudienez, berdin gertatzen da Industria Ministerioko erregistro integratuko inskripzioarekin. Behin inskribatzea nahikoa da.

Nola jokatu behar dute kudeaketa bulegoek berotegi efektuko gasen lurralde erregistroan inskribatzeko bidegabeak diren eskaerak direla-eta?

Eskaerak eskatutakoa espresuki ukatu behar dituzte, zergatiak arrazoituta eta ukapenaren lege edo erregelamendu xedapenak zehaztuta. Ukatzeko ebazpen guztietan bezala, eskatzaileari eman beharko zaio ebazpenaren aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen berri, zer organori eta zer epetan aurkeztu behar zaion adierazita.

Zein da berotegi efektuko gas fluordunak dituzten ekipo edo aparatu berrien inportazioen tratamendua, zergaren ondorioetarako?

Inportazioa ez dago zergari lotuta, zerga-egitatea ez den neurrian.

Inportatzaileak ez du behar GFJ koderik, zeren eta Gas fluordunen erregelamenduak 2. artikuluan inskribatzera derrigortzen baititu "*gas fluordunen gaineko zergari lotutako produktuen*" inportatzaileak eta, gure iritziz, ekipo edo aparatu horiek ez baitaude zergari lotuta, nahiz eta gas horiek eduki.

Zer tratamendu ematen zaie, zergaren ondorioetarako, berotegi efektuko gas fluordunak edukitzen dituzten ekipo edo aparatu berrien batasun barruko erosketei?

Batasun barruko erosketak ez dago zergari lotuta, zerga-egitatea ez den neurrian.

Batasun barruko erosleak ez du behar GFJ koderik, zeren eta Gas fluordunen erregelamenduak 2. artikuluan inskribatzera derrigortzen baititu "*gas fluordunen gaineko zergari lotutako produktuen*" batasun barruko erosleak eta, gure iritziz, ekipo edo aparatu horiek ez baitaude zergari lotuta, nahiz eta gas horiek eduki.

Zer tratamendu ematen zaie, zergaren ondorioetarako, inhalaziorako aerosol dosifikatzaile itxurako sendagaien inportazioei?

Inportazioa ez dago zergari lotuta, zerga-egitatea ez den neurrian.



Inportatzaileak ez du behar GFJ koderik, zeren eta Gas fluordunen erregelamenduak 2. artikuluan inskribatzera derrigortzen baititu "gas fluordunen gaineko zergari lotutako produktuen" inportatzaileak eta, gure iritziz, sendagai horiek ez baitaude zergari lotuta, nahiz eta gas horiek eduki.

Zer tratamendu ematen zaie, zergaren ondorioetarako, inhalaziorako aerosol dosifikatzaile itxurako sendagaien batasun barruko erosketei?

Batasun barruko erosketak ez dago zergari lotuta, zerga-egitatea ez den neurrian.

Batasun barruko erosleak ez du behar GFJ koderik, zeren eta Gas fluordunen erregelamenduak 2. artikuluan inskribatzera derrigortzen baititu "gas fluordunen gaineko zergari lotutako produktuen" batasun barruko erosleak eta, gure iritziz, sendagai horiek ez baitaude zergari lotuta, nahiz eta gas horiek eduki.

Nola ulertu behar da establezimendua, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren ondorioetarako?

Establezimendu bat egoteak inskripzioa eskatzeko erregistro eskudunaren zehaztapena eta izakinen erregistroa eramateko betebeharra baldintzatzen ditu (Gas fluordunen erregelamenduko 2. eta 4. artikulua). 16/2013 Legeak eta Gas fluordunen erregelamenduak ez dute zehazten zer den establezimendua.

Aurkako frogarik ezean, baldin eta instalatzaile batek gas fluordunen izakinak baditu, establezimendutzat hartuko da haiek biltzeko erabiltzen den lokala edo instalazioa. Maiz samar furgoneta bat edo antzekoak erabiltzen badira biltegi moduan, gure iritziz, inskripzio eskaera haren helbideari dagokion kudeaketa bulegoan aurkeztu beharko du.

Nola bete behar da Gas fluordunen erregelamenduak 4. artikuluan jasotako betebeharra, zergapekoa hainbat establezimenduren titularra izanez gero?

Gas fluordunen erregelamenduko 2. artikulua araberak lurralde erregistroan inskribatzera behartuta dauden zergapekoen establezimendu guztiak inskribatuta egon beharko dira horietako bakoitza kokatutako eremuari dagokion kudeaketa bulegoan.

Establezimendu bakoitzak bere izakinen erregistroa eraman beharko du; dena den, horrek ez du eragotziko, baldin eta titularrak komenigarria dela uste badu, bere titulartasuneko establezimendu guztien gasen mugimenduei buruzko erregistro bat ere eramatea.

Ogasun eta Finantza Departamentuak aurreikusi al du Gas fluordunen erregelamenduak 2.2 artikuluan jasotako jardueraren azalpen memoriarako eredu bat diseinatzea?

Ez, ez du aurreikusi, zeren eta ez 16/2013 Legeak eta ez Gas fluordunen erregelamenduak ez baitute xedatu horrelakorik.

Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuak aurreikusi al du Gas fluordunen erregelamenduak 4. artikuluan jasotako izakinen erregistrorako eredu bat diseinatzea?

Ez, ez du aurreikusi, zeren eta ez 16/2013 Legeak eta ez Gas fluordunen erregelamenduak ez baitute xedatu horrelakorik.

Ekipo edo aparatu berri bat martxan jartzeko behar den gas karga osagarriak izan al dezake 16/2013 Legeak 5.zazpi.1.d artikuluan jasotako salbuespena?



Ekipo edo aparatu berri baten karga osagarriak 16/2013 Legeak 5.7.1.d artikuluan jasotako salbuespena izan dezake, betiere lehen txertaketaren barruan sartzen bada.

Hori horrela, 100 kg-ko edukiera duen ekipo edo aparatu berri batek bakarrik 80 kg-ko karga badu, 20 kg-ko karga osagarria salbuetsita egongo da, lehendabiziko gas txertaketaren barruan dagoen neurrian.

Halere, lehen kasuan, baldin eta karga osagarria 30 kg-koa bada, lehen aldian sartutako 80 kg-etatik 10 kg galdu ondoren, bakarrik 20 kg-ko karga osagarria salbuetsiko da. Gainerako 10 kg-ak ez dira salbuetsiko, zeren eta ez baitira lehen txertaketaren barruan sartzen, lehendik sartutako beste batzuen ordeztatu direlako.

Nortzuk hartzen ditugu enpresaritzat, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren ondorioetarako?

Jarduera enpresarial bat egiten duten eta izaera horrekin enpresarien, profesionalen edo atxikitzaileen erroldan inskribatuta dauden pertsona guztiak.

Gas fluordunen erregelamenduko 2. artikuluan jasotako inskripzioa eskatzeko, ulertuko da jarduera hori enpresarien, profesionalen eta atxikitzaileen erroldako inskripzioarekin frogatuta dagoela.

Nola daude zergapetuta instalazioen berme epearen barruan egiten diren gasaren birkargak?

Instalazioa berme aldian egoteak ez du garrantzirik Gas fluordunen erregelamenduari dagokionez. Instalazio batean gas karga behar duen ihesa gertatzen bada eta hori bermatuta badago, karga hori berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergari lotuta egongo litzateke eta ez luke izango batere salbuespenik.

Kasu horretan, erreparatu beharko litzateke bermearen baldintzei, kargaz nor arduratu beharko litzatekeen jakiteko:

- Ardura instalatzailearena bada, gasaren karga autokontsumotzat hartuko litzateke (16/2013 Legearen 5.sei.1.b artikulua).
- Ardura instalazioaren jabearena bada, gasaren karga lehen salmenta edo entregatzat hartuko litzateke (16/2013 Legearen 5.sei.1.a artikulua).

Nork eskatu dezake 16/2013 Legearen 5.hamalau.2 artikuluan jasotako itzulketa?

Bakarrik zerga jasan duen amaierako kontsumitzaileak eskatu ahal izango du.

Adibidez: baldin eta 3 kg-tik beherako ziurtagiri baten titularra den instalatzaile batek (amaierako kontsumitzailea dena, Gas fluordunen erregelamenduko 1.1 artikulua araberak) bezero baten ekipoa gasez kargatzen badu eta gas hori geroago hondakinen kudeatzaile bati entregatzen bazaio suntsitu dezan, itzulketa bakarrik amaierako kontsumitzaileak eskatu ahal izango du, hau da, instalatzaileak.

Ondoren, parte hartzen duten aldean artean adostu beharko dute zerga berreskuratu hori nola helaraziko zaion, hala badagokio, amaierako kontsumitzailearen bezeroari. Bestetik, itzulketako eskaera ereduari lauki bat sartzeko aukera aztertzen ari da, amaierako kontsumitzaileak adierazi dezan itzulketa beste pertsona baten kontu korrontean egin ahal izango dela, betiere baimen hori eskaeraren ereduarekin batera aurkeztuta.



16/2013 Legearen 5.zazpi.1.d artikuluko salbuespena izan al dezake gas fluordunetz ekipo edo aparatu berriak kargatzen dituen eta 3 kg-tik beherako ziurtagiria (amaierako kontsumitzailea, Gas fluordunen erregelamenduko 1.1 artikuluan jasotakoaren arabera) duen instalatzaile batek?

Bereizi behar dira gas fluordunak erostea eta geroago horiek ekipo edo aparatuen kargan erabiltzea:

- Gasen erosketa zergari lotuta dago, nahiz eta instalatzaileak 16/2013 Legearen 5.zazpi.1.d artikuluan jasotako salbuespena izan dezakeen, gas fluordunak ekipo edo aparatu berrietan lehen aldiz sartzean erabilitzeagatik. Horretarako, Gas fluordunen erregelamenduko 2., 10. eta 14. artikuluetan jasotakoa bete behar da.
- Gas fluordunen ondorengo erabilpena ez dago zergari lotuta, zeren eta ez baita zerga-egitatea (16/2013 Legearen 5.sei artikulua) eta instalatzailea ez baita zergaduntzat hartzen (salbu eta 16/2013 Legearen 5.bederatzi.2 artikulua aplikagarria denean).

Baina, baldin eta instalatzaileak salbuespenik izan gabe erosi bazituen gas fluordunak eta, geroago, ekipo edo aparatu berrietan lehen aldiz sartzeko erabiltzen baditu, legeak ahalbideratzen du jasandako zergaren itzulketa eskatzea (16/2013 Legearen 5.hamalau.2 artikulua) amaierako kontsumitzailea izateagatik eta 16/2013 Legearen 5.zazpi.1.d artikuluan jasotako salbuespena izateko aukera izateagatik.

Bestetik, baldin eta instalatzaileak salbuespenaz gozatuta erosi bazituen gas fluordunak, baina azkenean salbuespenerako eskubidea sortzen dutenez bestelako erabileretan erabiltzen baditu, sortu beharrekoak ziren kuoten autolikidazioa aurkeztu beharko du dena delako hiru hilekoan, bai eta aldi berean zerga zorra ordaindu ere.

Instalatzaile batek (1) beste enpresa edo autonomo bat (2) birkontratatzan du, bezero baten (3) ekipo edo aparatu berri bat konpondu, mantendu edo instalatzeko. Enkargu horretan, gas fluordunen manipulazioa, karga edo birkarga sartzan da. (2) enpresak (1) enpresari fakturatuko dio eta, aldi berean, horrek (3) bezeroari fakturatuko dio.

Hainbat egoera gerta daitezke:

1. (2) enpresa amaierako kontsumitzailea izatea.

Instalatuko dituen gas fluordunak erostean zerga jasanarazi behar zaio, eta ondoren karga fiskala (1) enpresari helarazi ahal izango dio prezio bidez.

2. (2) enpresa birsaltzailea izatea; kasu horretan bi aukera gerta daitezke:

(1) enpresa amaierako kontsumitzailea izatea: (2) enpresak instalatuko dituen gas fluordunak erosten dituenean, salbuetsita erosiko ditu birsaltzailea izateagatik, eta ondoren (2) enpresak zerga (1) enpresari jasanarazi beharko dio eta, ondoren, azken horrek karga fiskala (3) enpresari helarazi ahal izango dio prezio bidez.

- (1) enpresa birsaltzailea izatea: (2) enpresak instalatuko dituen gas fluordunak erosten dituenean, salbuetsita egingo du birsaltzailea izateagatik. (2) enpresak (1) enpresari egiten dion faktura ere salbuetsita egongo da, azken hori birsaltzailea izateagatik. Ondoren, (1) enpresak (3) enpresari egiten dion faktura salbuespenerako eskubidearekin edo hori gabe den amaierako kontsumitzailea izateari lotuta egongo da.



3 kg gas fluordunetik gora manipulatzeko ziurtagiria duten enpresek erregistroan inskribatu behar dute derrigorrez?

Aukeran dute lurralde erregistroan inskribatzea edo ez. Azken kasu horretan, erosten dituen gas fluordun guztiei dagokienez zerga jasanaraziko da, eta uko egingo zaio 16/2013 Legearen 5.zazpi.1.a artikuluan jasotako salbuespena aplikatzeari. Beraz, ez da beharrezkoa Industriaren aurrean uko egitea gasak edota ekipoak manipulatzeko baimenari.

Ibilgailuak konpontzeko tailerrak birsaltzaileak ala amaierako kontsumitzaileak dira?

Ibilgailuak (trenbideak, aireontziak edo urontziak) konpontzeko tailerrak amaierako kontsumitzaileak dira gas fluordunak erabiltzen dituzten eta pertsonen ibilgailuetako konfort termikora bideratzen diren hozteko sistemak manipulatzeko ziurtagiria bakarrik dutenean (Gas fluordunen erregelamenduko 1.1 artikulua).

Kanpoan gelditzen da tailerra 3 kilogramo gas fluordunetik gora manipulatzeko beste ziurtagiri batzuen titularra den kasua, kasu horretan birsaltzailatzat hartuko baita, betiere modu horretantxe inskribatzen badira lurralde erregistroan. Erregistroan ez inskribatzea erabakiz gero, amaierako kontsumitzaileak izatean jarraituko dute.

Zergari lotuta al daude fabrikatzaileek, manipulatzaileek eta instalatzaileek beren jarduera egitean izaten dituzten gas fluordunen murrizpenak edo galerak?

"Nolako tratamendua dute gas fluordunen galerek?" galderaren atalean jasotakoaren arabera, 16/2013 Legeak inon ez du jasotzen gas murrizpenak, ihesak edo galerak zergari lotu gabe edo salbuetsita daudenik. Horregatik, zergari lotuta eta salbuetsi gabe daudela ondoriotatu behar da.

Honela interpretatzen du Zergen Zuzendaritza Orokorrak: "16/2013 Legearen 5. artikuluko bost.3 apartatuan berotze potentziala honela definitzen da: gas fluorduna osatzen duten sustantziaketako bakoitzaren pisutan adierazitako zergari lotutako frakzioen baturatik deribatzen den batez besteko ponderatua, pisu tolerantzia +/-%1ekoa izanik. Hori horrela, produktua fabrikatzean, nahastean edo erabiltzean sortu daitezkeen murrizpenek berekin ez dakarte zerga ordainketarik +/-%1eko tolerantzia horretan oinarrituta, produktuak sartzean eta ateratzean pisaketa egiaztatuta. Hortik gorako diferentziak ez dira onartuko, salbu eta dena delako balantzen ziurtagiri teknikoak aurkeztuz frogatu badezakete pisaketako diferentziak +/-%1etik gorakoak izan daitezkeela, betiere dena delako balantza EEEko ziurtagiriarekin homologatuta egon behar duelarik".

Eskaeran atzera egin ahal izango al dute gasak karga mugarik gabe manipulatzeko ziurtagiria duten eta 2014ko urtarrilean lurralde erregistroan birsaltzaile moduan inskribatzeko eskatzea aukeratu duten instalatzaileak?

Izan ere, gasak kargaren mugarik gabe manipulatzeko ziurtagiria duten instalatzaileentzako irizpidea da erregistroan inskribatzeko aukera izatea eta aukera horren arabera izango duten zergarekiko posizioa. Inskribatuz gero, saltzailatzat hartuko dira eta, hori egin ezean, amaierako kontsumitzaileatzat.

Erabaki horrek lotu egingo ditu instalatzaileak, behin inskripzioa eginda, nahiz eta kudeaketa bulegoak inskripzio eskaera ebatzen duen bitartean eskatzaileak eskaeran atzera egin dezakeen.

Atzera egin baino lehen eskatzaileak egin zitzakeen erosketak zergari lotuta eta salbuetsi gabe egongo lirake, zeren eta hark izenpetutako aitopenenak (Gas fluordunen



erregelamenduko lehen xedapen iragankorrean aipatua) ondorioak izango ditu bakarrik baldin eta aurkeztutako eskaeraren arabera inskribatzen bada azkenean.

Zerga jasan behar al du amaierako kontsumitzailea den (bere titulartasuneko ziurtagiriagatik edo, ziurtagiria alde batera utzita, birsaltzaile moduan ez inskribatzea aukeratzeagatik) eta berak erositako gasak salbuetsi gabeko erabileretara zuzentzeagatik onuradun gisa inskribatzen ez den instalatzaile batek?

Instalatzaileak zerga jasan beharko du, ezin baitu sartu 16/2013 Legearen 5.zazpi artikuluan jasotako salbuespen kasuetako batean ere.

Erositako gasak erabilera salbuetsi batera zuzenduz gero, amaierako kontsumitzaileak aukera izango du jasandako zergaren itzulketa eskatzeko, 16/2013 Legearen 5.hamalau.2 artikuluan eta Gas fluordunen erregelamenduko 19. artikuluan jasotakoaren arabera.

Derrigorrezkoa al da Gas fluordunen erregelamenduko 2. artikuluan jasotako lurralde erregistroan inskribatzea?

Gas fluordunen erregelamenduko 2.1 artikuluan aipatutako pertsonak edo entitateak (salbu fabrikatzaileak, inportatzaileak, batasun barruko erosleak eta hondakinen kudeatzaileak) behartuta daude lurralde erregistroan izena ematera, 16/2013 Legearen 5.zazpi artikuluko 1. eta 2. apartatuetan jasotako salbuespen kasuetan sartu nahi badute. Ez inskribatzea aukeratuz gero, ezin izango dute bildu zerga onura horietara.